

JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2023 urtarrilaren 2an honako Dekretu hau eman zuela:

“2022ko ekainaren 23an emandako dekretu baten bitartez Bergarako Udaleko alkateak erabaki zuen honako deialdi publikoa egitea eta hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzea:

- Oposizio-lehiaketa bidez eta txanda librean erabiliz:
 - Obra eta Zerbitzuetako Lorezaintza Brigadarako lorezain ofiziala kontratu finkoarekin kontratatzeko deialdia (esp.: 2022LAAU0008).

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren bitartez, 2022ko uztailaren 13an argitaratu ziren oposizio-lehiaketa bidez eta txanda librean Obra eta Zerbitzuetako Lorezaintza Brigadarako lorezain ofiziala kontratu finkoarekin kontratatzeko deialdiari dagokion hautaketa-prozesua arautzeko oinarriak (esp.: 2022LAAU0008).

Hirugarren Oinarrian –hautagaiek bete beharreko baldintzak eta eskakizunak jasotzen dituen atalean– akatsa sumatu denez, zuzenketa egiten da:

Hirugarren oinarriko c) eta f) ataletan honela dioen tokian:

“c) Lorezaintzako erdi-mailako LH edo basogintzako erdi-mailako LH gehi 2 urteko esperientzia lorezaintzako ofizial gisa.

f) B+E gida baimena.”

Honela esan behar du:

“c) Lorezaintzako erdi-mailako LH, basogintzako erdi-mailako LH lorezaintzako ofizial gisa 2 urteko esperientziarekin, edo baliokideak (Lorezaintzako eta basogintzako goi mailako LHak (azken hau lorezaintzako ofizial gisa 2 urteko esperientzia izan duela egiaztatua) baliokideak direla ulertuko dira).

f) B gida baimena.”

Bestalde, Bederatzigarren Oinarrian, Merezimenduen fasean (lehiaketa), erakunde ofizialek emandako ikastaroak edo horiek homologatutakoak izanik baloratuko direnen artean, **honako hau gehitzea erabaki zuen Behin-behineko Alkateak:**

— B+E gida baimena indarrean izatea: **5 puntu.**

Kontuan izanda zuzenketa hauek duten garrantzia eta eragina deialdian, eskaerak aurkezteko epe berri bat zabaltea dagokio udalari.

Horiek horrela, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren bitartez, 2022ko uztailaren 13an argitaratutako Obra eta Zerbitzuetako Lorezaintza Brigadarako lorezain ofiziala kontratu finkoarekin kontratatzeko deialdiari dagokion hautaketa-prozesua arautzeko hirugarren oinarrian goian aipatutako zuzenketak eta aldaketak onartzea, eta bederatzigarren oinarrian onartutako aldaketa berrestea.



BIGARRENA: Aipatutako aldaketak/zuzenketak jasoko dituzten oinarri osoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 laneguneko epe berri bat ematea parte hartzeko eskaerak egiteko.

Aurretik eskaera eginda duten interesdunei eskaera zuzentzeko edo aurkeztutakoak eguneratzeko edo osatzeko aukera ematea epe berean. Ezer aurkeztu ezean, udalean jasota dagoen dokumentazioa izango da aintzat hartuko dena prozesu honi dagokionean.

HIRUGARRENA.- Erabakia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta udaleko web-orrian eta udaleko iragarki taulan, jakinarazpen eraginetarako.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Dena den, interesdunek egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere jar dezakete.

lege-oinarria: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Begara, 2023ko urtarrilaren 18a

IDAZKARIA

SE COMUNICA que el Alcalde el 2 de enero de 2023 emitió el siguiente decreto:

“Mediante Decreto de Alcaldía del Ayuntamiento de Bergara emitido el 23 de junio de 2022, se resolvió realizar la siguiente convocatoria pública y aprobar las bases de su proceso selectivo:

- Mediante concurso-oposición y en turno libre:
 - Convocatoria para la contratación, con contrato fijo, de un/a oficial jardinero/a para la Brigada de Jardinería de Obras y Servicios (expte.: 2022LAAU008).

Mediante anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 13 de julio de 2022, fueron publicadas las bases reguladoras del proceso selectivo de la convocatoria para la contratación, con contrato fijo, mediante concurso-oposición y en turno libre, de un/a oficial jardinero/a para la Brigada de Jardinería de Obras y Servicios (expte.: 2022LAAU0008).

Habiéndose detectado un error en la Base Tercera –que establece las condiciones y requisitos que han de cumplir las personas candidatas–, se procede a su subsanación:

En la Base Tercera, en sus apartados c) y f), donde dice:

“c) FP de nivel medio de jardinería o FP de nivel medio de forestal, más 2 años de experiencia como oficial de jardinería.

f) Permiso de conducir B + E.”

Debe decir lo siguiente:

c) FP de nivel medio de jardinería, o FP de nivel medio de forestal con 2 años de experiencia como oficial de jardinería, o equivalentes (Se entenderá que la FP de nivel superior de jardinería y de forestal serán equivalentes (siempre que se acredite en esta última una experiencia de 2 años como oficial de jardinería)).

f) Permiso de conducir B.”

Por otro lado, en la Base Novena, Fase de Méritos (concurso), entre los cursos impartidos por organismos oficiales u homologados por los mismos que serán valorados, la Alcaldía Accidental resolvió añadir lo siguiente:

- *Estar en posesión de permiso de conducir B+E en vigor: 5 puntos.*

Teniendo en cuenta la entidad de estas subsanaciones y sus consecuencias en la convocatoria, corresponde al ayuntamiento abrir un nuevo plazo de presentación de instancias.

Así pues, **HE RESUELTO:**

PRIMERO: Respecto al proceso selectivo de la convocatoria para la contratación, con contrato fijo, de un/a oficial jardinero/a para la Brigada de Jardinería de Obras y Servicios, publicada mediante anuncio del Boletín Oficial de Gipuzkoa de 13 de julio de 2022, proceder a aprobar las subsanaciones y modificaciones de la base reguladora tercera arriba señaladas y ratificar la modificación aprobada en la base novena.

SEGUNDO: Publicar el texto completo con las citadas modificaciones/subsanaciones en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y otorgar un nuevo plazo de 20 días hábiles para la presentación de solicitudes de participación.

Dar opción a las personas interesadas inscritas anteriormente para que, en ese mismo plazo, puedan subsanar su solicitud o actualizar o completar lo presentado en su día. En caso de que no presenten nada, la documentación que se tendrá en cuenta en relación con este proceso será la que presentó en el ayuntamiento.

TERCERO. - Publicar esta resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en la página web municipal y en el tablón de anuncios del ayuntamiento, a efectos de notificación.

Recursos contra la resolución:

Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica podrá interponerse RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar cualquier otro recurso que estimen procedente.

fundamentos jurídicos: Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.

Begara, 18 de enero de 2023

LA SECRETARIA

